

# 2014eko ABENDUAREN 15eko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2014eko abenduaren 15ean, Herriko Kontseilua herriko etxean bildu zen 20:00tan, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : Vincent Bru auzapez jauna, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Henri Saint Jean jauna, axuantak ; Anne-Marie Pontacq anderea, Christiane Hargain-Despèries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othateguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak : Eliane Aizpuru andera, axuanta ; Vincent Goytino jauna, Roger Barbier jauna, Philippe Bacardatz jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordez : Eliane Aizpuru andereak Didier Irastorza jaunari, Vincent Goytino jaunak Patrice Dor jaunari, Philippe Bacardatz jaunak Argitxu Hiriart-Urruty andereari.

## **1 – Bilkuraren idazkariaren izendapena.**

**Aho batez** bozkaturik, hor ziren kideek Argitxu Hirigoyen anderea hautatzen dute idazkari gisa.

## **2 – Azken bilkuraren jakinarazte-aktaren onartzea.**

Kontseiluko kideek 2014eko azaroaren 3an iragan azken bilkuraren jakinarazte-aktari buruzko oharrak egin nahi dituztenez galdegiten du auzapez jaunak. Oharrik ez denez egiten, azken bilkuraren jakinarazte-akta aho batez onartzen da.

## **3 – ZPO (Zerbitzu Publikoaren Ordezkaritza / DSP) saneamendu kolektiboa.**

Herriko kontseilariari egin deiaren oharra aldatu behar dela zehazten du auzapezak. Hiru sozietate hautatuak izan ziren, ez bi : Lyonnaise des Eaux, AGUR eta VEOLIA. 2014eko irailaren 1ean egin gutun baten bidez, VEOLIA sozietateak bozkari segidarik ez zuela ematen zehaztu du. Hau ez zen deiaren bidez eman txostenean zehaztua izan.

Txosten hau aurkeztuko duen Devèze jaunari hitza eman aitzin, auzapezak jakinarazten du elkargoa desmartxa honetan laguntzeko hautatua izan den Calia ikerketa bulegoaz gain, Parisen abokatua den Pintat Maisuaren zerbitzuez baliatzen dela herria gauzak ahal bezain ongi aitzinatzeko, azken maisu honek zerbitzu publikoaren ordezkari prozedura hau segitu duelarik eta bilkura honetan parte hartzen duelarik galdera teknikoei erantzuteko. Pintat Maisuak Bil ta Garbi sindikatuan dihardu ere bai, auzapez jauna honen lehendakariordea delarik, eta Paris-Sorbonne Unibertsitatean ere klaseak ematen ditu.

2013ko uztailearen 8an hausnartu prozedura luze bat bururatzen ari dela zehazten du Devèze jaunak. Elkargoa zerbitzu publikoaren ordezkari-tza desmarta honetan laguntzeko, kontsulta bat izan da ikerketa bulego bat izendatzeko asmoz. Hiru bulego deituak ziren, eta Pintat Maisuaren sostengu juridikoarekin, Calia ikerketa bulegoa hautatua izan da. 2014eko apirilaren 28an deliberatu ondoren, herriko Kontseiluak Calia ikerketa bulegoaren txostena onartu eta zerbitzu publikoaren ordezkari-tza prozedura abiatu du. Joan den agorriaren 6an, zerbitzu publikoaren ordezkari-tzaren batzorde berezia bildu da hautagaien hautatzeko eta Lyonnaise des Eaux, AGUR eta VEOLIA onartu ditu. Azken horrek, 2014eko irailaren 1ean igorri gutun baten bidez, bozkari segidari-k ez zuela ematen zehaztu du. Lehian ziren bi sozietateen idekidura urriaren 8an iragan da. Calia bulegoak proposamenak aztertu ditu, eta joan den urriaren 20an zerbitzu publikoaren ordezkari-tzaren batzorde bereziari aurkeztu du bere azterketa. Urriaren 8az geroztik, negoziatio epe bat ideki da, gutxienez auzapezak erabaki baino bi hilabeteko legezko iraupenarekin. Negoziatio hori legearen arabera iragan da, eta auzapez jaunak Lyonnaise des Eaux sozietatea hautatu du.

Kontseilari-ek komunikatu txostenatik eta prozedura honen ondotik, herriko Kontseilua hautu hori onartzera gonbidatua da.

Devèze jaunak zehazten du hastapeneko kontratua epemugara heldu dela 2013ko abenduaren 31an. Kontratuaren iraupena urte batez luzatzen duen gehigarri bat adostu da Lyonnaise des Eaux sozietatearekin, hots 2014eko abenduaren 31ra arte, zerbitzu publikoaren ordezkari-tza prozedura ongi eramateko gisan.

Devèze jaunak jakinarazten du txostenaren 7. orrialdean, zuzendu behar-ko den huts bat dagoela : idekidura batzordea ez dela 2014eko urriaren 9an bildu baizik eta urriaren 8an.

Devèze jaunak galdegiten du galderak direnez.

Galderarik ez denez, herriko Kontseiluari bere iritzia ager dezan galdegiten dio auzapez jaunak.

Auzapezak egin hautua aho batez onartzen du herriko Kontseiluak, hots Lyonnaise des Eaux sozietatea saneamendu kolektiborako zerbitzu publikoaren ordezkari izatea. Kontratu berria 2015eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Auzapez jaunak Pintat Maisua eskertzen du azken hura gelatik atera aitzin.

### **3bis – Gai zerrendako puntu gehigarriak.**

Gai zerrendako hiru puntu gehigarri idaztea proposatzen dio auzapezak herriko Kontseiluari :

- Saneamenduaren aurrekontu gehigarriarendako diruzaintza linea bat idekitzea,
- Pimprenelle haurtzaindegia – Euskararen Erakunde Publikoa, Errobi Herri Elkargoa eta LSHZ-rekin hitzarmena : gehigarria.
- Ikastun langile baten kontratatzea arlo sozialaren inguruko ikerketa baten eramateko.

Aho batez onartua.

- a) *Saneamenduaren aurrekontu gehigarriarendako diruzaintza linea bat idekitzea.*

Devèze jaunak azaltzen du :

1 800 000 €-ko aurrekontua bozkatu da saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarrian. Obra asko egin dira (%50 inguru), uren bereizketa obrak gehienbat, eta 2014 urte bukaeran bankuen lehiaketarik ez da galdatu. 2014eko aurrekontuaren gastuen mandatzea gauzatzeko, Devèze jaunak 800 000 €-ko diruzaintza linea baten idekitzea proposatzen du. Zehazten du ahal bezain luzaz goaitatu duela diru baldintza erakargarriak lortzeko. 1 800 000 €-ko mailegua %1,89-ko tasan gauzatuko da 12 urtez, %1,529-ko tasan diruzaintza linearentzat.

Hilabete batendako diruzaintza linea honen idekitzeko baimena ematea proposatzen dio Devèze jaunak herriko Kontseiluari, linea hau 1 800 000 €-ko maileguaz indartuko delarik 2015eko urte hastapenean.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zein bankurekin gauzatuko diren operazio horiek.

Devèze jaunak erantzuten dio Caisse d'Epargne bankua hautatua izan dela, Crédit Agricole bankuak %2,71-ko tasa proposatzen zuelarik.

Michelena jaunak galdegiten du 2014eko hastapeneko aurrekontuaren arabeko obrei lotua denez.

Devèze jaunak baietz erantzuten dio.

Michelena jaunak galdegiten du obra horiek nola finantzatuak ziren.

Devèze jaunak erantzuten dio 1 800 000 €-ko mailegiaren bidez finantzatuak zirela.

Michelena jaunak galdegiten du zergatik 1 800 000 €-ko mailegua ez den bozkatu 2014eko hastapeneko aurrekontuaren bozkatzean. Dirurik ez gehiago izatea beha egon girea mailegua honen gauzatzeko ?

Devèze jaunak ezetz erantzuten du, eta zehazten du egungo egunean diruzaintzak 700 000 €-ko ondasuna kontatzen duela. Diruzaintza linea honen idekitzeak abantzu baten mantentzeko ahala ematen du. Joan den apirilean, diru baldintzak ez ziren gaur egungoak bezala, hobe zen goaitatzea.

*Barbier jauna sartzen da.*

Devèze jaunak azaltzen du ere ez zekiela zein obra gauzatuko zen. Bestalde, herria ez da segur gaitasun hori atxikiko duela ; ez da baliatze-gaitasun batean baizik eta igurikatze egoera batean. Horregatik gauzatu dira obrak, eta gauzatzen segituko dute, bereziki Zesarren Kanpamenduko bidexkan.

Auzapezak bozkara pasatzea proposatzen du.

800 000 €-ko diruzaintza linearen idekitzea aho batez onartua da.

b) ***Pimprenelle haurtzaindegia – EEP, Errobi Herri Elkargoa eta LSHZ-rekin hitzarmena : gehigarria.***

Euskararen Erakunde Publikoko François Maitia lehendakariarekin bilkura bat izan dela dio auzapez jaunak herriko Kontseiluari, eta Peio Etchelecu jaunari ematen dio hitza.

Etchelecu jaunak jakinarazten du gai hori ezin izan duela aipatu, informazioa ez zelako ezaguna « euskara - parekatze » batzordearen bilkuran.

2010ean hasi hartzaindegiarendako labelizatze prozedura batean sartu da herria, C eredura heltzeko helburuarekin, hots profesionalen kopuruaren erdia elebidun izan dadin. Desmarta luzea da langileak formatu behar direlako. Labelizatze kontratua 2014eko urte bukaeran bururatzen da, eta pertsona batek euskarazko formakuntza segitu behar du desmarta honetan jarraitzeko. Otsailean iraganen den labelizatze komitearen aitzinean berriz pasatu baino lehen, eta lehengo labelizatze kontratuan finkatu diru laguntza moduak segitzeko helburuarekin, herriko Kontseiluari erabaki bat hartzea komeni zaio orduan auzapezari urte bateko luzatze gehigarri baten izenpetzeko baimena emateko, hartzaindegiari dagokion desmarta zein labelera bideratuko dugun erabaki aitzin. Label bat laster lortzeko, B+ edo B' labelera pasatzea komeni litzateke hartzaindegiaren 45 tokien artean 18-20 haurrentzat harrera gune euskaldun bat proposatzeko gisan, langileen erdia elebidun izan gabe ere. Proposamen hori heldu den otsailean soilik aztertzen ahalko du labelizatze komiteak, hots ondoko etaparentzat bilduko den momentuan. Hala ere, 2010ean hasi lehen labelizatze desmartzari lotu urte bateko gehigarria adostera bultzatzen gaitu formakuntza behar horrek.

Auzapez jaunak Maitia jaunari azaltzen dio langile bat erretretan sartuko dela eta komeni litzatekeela orduan gaitasun bereko euskaldun bat hartzea, hartzaindegiko taldea indartzeko gisan. 2015ean obrak izanen lirateke ontsalaz, batez ere hartzaindegiko patioa erabiltzeko (haren estaltzea jadanik galdegin zuten Hernandorena andereak eta Jameau zuzendariak), haur euskaldunentzat erabiliko litzatekeen gune bat hobeki mugatzeko gisan.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zenbat soldatadun euskaldun behar diren 18 haurrentzat.

Etchelecu jaunak zehazten du 4 edo 5 soldatadun behar liratekeela, hots kopuruaren erdia baino pixka bat gutxiago, label hori oraindik lortzeko eta komunikazio euskarrietan label horren erabiltzeko, jakinez euskara jadanik erabiltzen dela hartzaindegian bainan ez Euskararen Erakunde Publikoak aurreikusi label ofizialaren pean.

Hiriart-Urruty andereak azpimarratzen du 18 haur horiek besteengandik bazter egonen liratekeela.

Etchelecu jaunak azaltzen du haur horiek ez liratekeela bazterrean egonen, jardueren parte handi bat beste haurrekin partekatuko litzatekeela, bainan espazio bat egonen litzatekeela euskara gailentzeko.

Auzapez jaunak galdegiten du beste galderak badirenez, eta bozkara pasatzea proposatzen du.

Aho batez, Pimprenelle hartzaindegiaren labelizatze elebidunerako laguntza plangintzari lotu gehigarria izenpetzeko baimena ematen dio herriko Kontseiluak auzapezari.

Auzapez jaunak jakinarazten du aho batez bozkatu deliberoa Euskararen Erakunde Publikoaren idazkaritzari transmitituko duela.

c) ***Ikastun langile baten kontratatzea arlo sozialean.***

Auzapez jaunak azaltzen du herriko Kontseiluko bilkura baino lehenagoko talde bilkuran, Henri Saint Jean medikuak proiektu bat aipatu zuela. Hiriart-Urruty andereak ere aipatu dio bilkura

honen hastapenean, eta komeni litzateke arrats honetan deliberatzea ikastun langile hau ahal bezain laster kontratatua izan dadin. Auzapezak Saint Jean medikuari ematen dio hitza.

Saint Jean medikuak zehazten du gizarte alorreko aferen batzordeak gauzatu nahi duen « aide aux aidants » kuadroan sartzen dela proiektua. Jakinarazten du Geriatria zerbitzuko Céline Paris Zapata gizarte laguntzaileak animaturiko bilkura bat izan dela. Giza baliabideetan den ikasle batekin harremanetan sartu da eta hartua izan da zailtasunean diren laguntzaile horien inguruan lan egiteko. Pertsona horrek Kanboko zein inguruetakoa diagnostikoa egin eta herriarekin lan egiteko prest izan beharko du, ikastun langile gisako lansaria hartuz. Erabakia laster hartu behar da, bestela beste nonbait xekatu du ikasle honek.

Hiriart-Urruty andereak azaltzen du ikastun langile horren lansaria 436 €-koa litzatekeela hilabetean, hots 1 500 €-koa hiru hilabeterentzat.

Saint Jean medikuak azpimarratzen du LSHZ-ren aurrekontua hertsia denez, herriko Kontseiluari proposatzen duela herriak berak ikastun langile hau kontratatzea.

Hiriart-Urruty andereak erraten du pertsona honek denbora osoan lan egingen duela, hots 35 oren astean, eta ikastun langile gisako lansari bat hartuko duela.

Auzapez jaunak zehazten du bere taldearen programan sartzen zela, oposizioarenean ere bai.

Michelena jaunak ohartarazten du beren programa Bru jaunaren taldearena baino lehenago atera zela.

Auzapez jaunak azaltzen du pertsona anitzek azpimarratu arazo garrantzitsu bat dela. Bide hori hartu behar dela, eta serio, libre eta gai den pertsona bat etortzeko prest denez, sekulako parada dela.

Saint Jean medikuak zehazten du bere tutoreak lagunduko duela eta bere lana zainduko duela.

Auzapez jaunak bozkara pasatzea proposatzen du.

Aho batez, herriko Kontseiluak erabakitzen du laguntza kuadro honetan, ordaindua izan den ikastun langile bat kontratatzea hiru hilabeterendako.

#### **4 – Asurantzaren zerbitzu emaile baten hautatzeko merkatua.**

Auzapez jaunak zerbitzuen zuzendariari ematen dio hitza. Azken honek oroitarazten du 2009ko apirilean, herriak, SMACL Asurantzarekin, ondoko arriskuak estaltzen dituzten kontratuen berregite-proposamena balioetsi duela :

- Besteari egin kalteak, defentsa eta errekurtsioa
- Ondasunei egin kalteak
- Motorezko ibilgailuei egin kalteak
- Babespen juridikoa.

Adierazi gabeko luzapenaren bidez, kontratua urte batentzat arraberritu da, hots 2014eko abenduaren 31ra.

Kontratu berrien suskripziorako kontsulta bat abiatu da. Kontratuak hiru urteko iraupenarekin egingen dira, 2015eko urtarrilaren 1etik goiti.

Lau kandidatuk erantzun dute zati bat edo gehiagorentzat. Batzordea bildu da proposamen ezberdinak aztertzeko, eta SMACL Asurantzak du proposamen erakargarriena egin, hots :

- Ondasunei egin kalteak : 15 804,44 € urteka BEZa bane (2014ean ordaindua : 30 995 € BEZa barne)
- Besteari egin kalteak : 5 769,15 € urteka, BEZa bane (2014ean ordaindua : 6 717 € BEZa barne)
- Motorezko ibilgailuak : 13 551,83 € urteka BEZa bane (2014ean ordaindua : 19 136 € BEZa barne)
- Babespen juridikoa : 957,02 € urteka BEZa barne (2014ean ordaindua : 1 131 € BEZa barne).

Bardin jaunak galdegiten du zeri lotua den beherapen hori.

Zerbitzuen zuzendariak erantzuten du duela lau urte hondamena gora zela, eta gaur egun askoz apalagoa dela.

Auzapez jaunak bozkara pasatzea proposatzen du.

Aho batez, SMACL-arekin asurantza zerbitzu ematearen kontratua izenpetzeko baimena ematen dio herriko Kontseiluak auzapezari.

## **5 – Txikito karrikaren zabaltze obrak – eremu publikoan sartzea eta sailkatzea : ikerketa publikoaren abiatzea.**

Txikito karrikaren balio emate obraren ondotik, auzapez jaunak azaltzen du jabetza pribatuei dagozkien zabaltze obrak egin direla. Zabaltze obra horiei lotuak diren lau jabetza onartu dute beren jabetza herriko eremu publikoari uztea euro sinbolikoaren truke. Horren harira, ikerketa publiko bat abiatu behar da.

Afera honi lotuak diren lau jabetza hauek dira :

- Linkemper jaun-andereak eta Veronneau anderea ; 10 m<sup>2</sup>-ko lursaila uzten dute,
- Marie-Claude Bonnet anderea 1 m<sup>2</sup>-ko lursaila uzten duena,
- Jean-François Gastigard jauna, 5 m<sup>2</sup>-ko lursaila uzten duena,
- Philippe Meynier jauna, 7 m<sup>2</sup>-ko lursaila uzten duena.

Lursail horien uztea berresteko ikerketa publikoaren abiatzea eskatzen du auzapez jaunak herriko Kontseiluari. Aho batez onartua.

## **6 – Harriondoa eta Zesarren Kanpamenduko bidexken zabaltze obrak – eremu publikoan sartzea eta sailkatzea : ikerketa publikoaren abiatzea.**

Auzapez jaunak jakinarazten du Rigaud medikua eta bere andereari antolamendu baimena ematean, Harriondoa eta Zesarren Kanpamenduko bidexken zabaltze obrarentzat lursail baten uztea aurreikusia zela. Egoera hau erregulartzea komeni da egun. Euro sinbolikoaren truke utzia den lursaila 576 m<sup>2</sup>-koa da.

Lursail horiek eremu publikoan sartzeko gisan, ikerketa bat eraman behar da.

Auzapez jaunak herriko Kontseiluari galdegiten dio Rigaud jaun-andereek euro sinbolikoaren truke utzi 576 m<sup>2</sup>-ko lursailaren eskuratzeari buruz iritzi bat ematea, eta lursail horiek eremu publikoan sartzeko eta sailkatzeko ikerketa publiko bat abiatzeko baimena eskatzen dio. Zerbitzuen iritzia ez da beharrezkoa 75 000 € bainogutxiagoko zenbatekoa delako.

Aho batez onartua..

## **7 – Agnianeko borda auzoa.**

### **a) *Zabaltze obrak Agnianeko bordako bidexkan : ikerketa publikoaren abiatzea***

Agnianeko bordako bidexkaren zabaltze obrei dagokienez, auzapez jaunak jakinarazten du Foucault jaun-andereek herriari 12 m<sup>2</sup>-ko lursail bat uztea onartu zutela euro sinbolikoaren truke, Zazpi Haitzen biderako aterabidearen ikuspena hobetzeko gisan.

Lursail hori eremu publikoan sartu eta sailkatzeko, ikerketa bat eraman behar da.

Auzapez jaunak herriko Kontseiluari galdegiten dio Foucault jaun-andereek euro sinbolikoaren truke utzi lursailaren eskuratzeari buruz iritzi bat ematea, eta lursail hori eremu publikoan sartzeko eta sailkatzeko ikerketa publiko bat abiatzeko baimena eskatzen dio.

Aho batez onartua.

### **b) *Zerbitzu hitzarmena***

Auzapez jaunak jakinarazten du erregulazio kasu bat dela hemen ere. Alabaina, 90. hamarkadan, Foucault jaun-andereek beren lusailean ur zikinen eta euri uren bi hodi ezartzeko baimena eman zioten herriari. Horren truke, aipatu lursail honen PFAC-tik kanpo (saneamendu kolektiborako parte hartzea, lehen « isurbideei lotu zerga » izendatua) litzatekeen 500 m<sup>2</sup>-ko lur zati baten zerga arintzera engaiatu zen herria.

Txosten hau erregulartzeko, Foucault jaun-andereek eskaturik eta herriak gibelera egin ezinik, herriko Kontseiluari komeni zaio deliberatzea Foucault jaun-andereen lursaila zergapetzen duen hodian zerbitzu hitzarmena modu formal eta juridikoan gauzatzeko, eta horren truke lehengo isurbideei lotu zergatik libratzea, Foucault familiaren jabegotik kanpo litzatekeen 500 m<sup>2</sup>-ko lur zati batentzat.

Michelena jaunak dio : « Hitza hitz ».

Hiriart-Urruty andereak bere burua galdezkatzen du : « Foucault jauna hautetsia ote zen garaian ? Geometrialaria da. erregulaziorik ez izanak harritzen nau ».

Auzapez jaunak erantzuten dio Laurent Duhart-en kargualdian zela Foucault jauna.

Aïçaguerre andereak galdegiten du nola jakin dezakegun promesa bat denez, eta nonbait idatzia ote den.

Auzapez jaunak erantzuten dio lekukoak badirela eta zerbitzu teknikoan lehengo zuzendariak konfirmatu duela. Orduetik, lehengo herriko taldeek egin promesak errespetatzea komeni da.

Ezatabaidatu ondoren, herriko Kontseiluak aho batez erabakitzen du Foucault jaun-andereen lursaila zergapetzen duen bide-zortasun administratibo bat gauzatzea, « isurbideei lotu zerga »-ren dispensa bideratuko den 500 m<sup>2</sup>-ko lur zatian.

## **8 – Lur baten eskuratzea Kanbo Beherean.**

Auzapez jaunak jakinarazten du Kanbo Behereko lorategi publikoaren parean, Simon familiarena den lur bat existitzen dela, UY sailean sailkatua dena. Leku honetan eskulangile bat instalatzea ez da arras komeni, eta Kanbo Behereko eskulangintza jardueraren garapena kondutan harturik, herri honen sartzean aparkaleku bat egitea oso baliagarria litzateke. Horregatik Simon familiari onartzen zaio bere lurraren giblean hiru lur zati eraikigarri egitea, eta horren truke, Celhaya izeneko bide bazterrean den lurraren beste zatia herriari eman behar dio.

1 100 m<sup>2</sup>ko eremu batek aparkaleku bat eta Kanbo Behereko interes kolektiborako eraikin bat burutzeko parada emanen luke. Hala nola, eraikin hori baliagarria litzateke auzo edo besta komitearen bilkurentzat, erakusketentzat edota bozka bulego baten instalazioarentzat.

Printzipiozko baimena hau da :

- Simon jaun-andereei 600 m<sup>2</sup>-ko hiru lur zati egiteko baimena emanen litzaieke. Hiru lur horiek, ahal bada eta lehentasunez, Kanboko gazteei salduko liriateke prezio erakargarrian,
- Hiru lur zatiak, horien helbidea eta herriari eman lur zatia eraikuntzarako egokitzera engaiatu da herria. Eraikuntzarako egokitze horrek aparkalekuen antolatzeko parada emanen luke (20 leku). VRDak (bide eta sare ezberdinak) egitea ere aurreikusia da (ur edangarria, elektrizitatea, France télécom, gasa...), 67 986,28 €-ko zenbatekoarentzat (zergarik gabe).

Simon jaun-andereek 1 100 m<sup>2</sup>-ko eremua uzten dute orduan, 67 986,28 €-ko zenbatekoarentzat ( HT edo zergarik gabe), hots 81 583,56 € BEZa barne.

Hiriart-Urruty andereak auzapezari ohartarazten dio erran duela lurra UY gunean zela.

Auzapez jaunak erantzuten du HTP-ren aldaketa denboran, lurra UC gunean sailkatua izan dela.

Aiçaguerre andereak zehazten du joan den urtarrilaren 27ko aldaketa denboran zela, eta orduz geroztik, aldaketa sinple baten bidez gune zatiketa alda daitekeela.

Auzapez jaunak erantzuten du U gune batean, aldaketa baten bidez aldatzen ahal dela. Aldiz, lurra natura edo laborantzako gune batean balitz, ez litzateke posible. Berdin litzateke lurra sailkatua den gune oihantsu batean balitz.

Aiçaguerre andereak galdegiten du herriak plangintza orokor bati pentsatu duenez, joan den aldian « Haize-lasterraren » erostearen kasua zelako, orain aparkalekuaren eraikuntzarena delarik.

Auzapez jaunak erraten du « Haize-lasterraren » parada baino lehenagokoa zela hau, bainan ikusi behar zela zenbat balio zuen. Plangintza orokor baten barne da. Gehiengoan den taldeko batek aitzinera eman zuen ideia bat gauzatu nahi du, hots auzo eder hori eskulangintza jarduerari esleitzea.

Bestalde, bitartekaritza leku bat izatearen beharra aipatu zuten batzuek. Interesgarria litzateke egun batez 100 m<sup>2</sup>-ko lokal bat ikustea edozein entseinarekin harbidearentzat.



Eskulangintzari begira lau toki aipatuak direnez, Hiriart-urruty andereak galdegiten du Burlazteian diren pertsonak bertan egonen liratekeenez.

Auzapez jaunak erraten du Burlazteian den Karaban'art elkarte « Haize-lasterrera » joanen litzatekeela, kideek tokia falta dutelako eta beste jarduera batzuk garatu nahi lituzketeelako. Eskulangintzarako hiru toki lirateke orduan : Burlazteia, « Haize-lasterra » eta eskulangile batzuei alokatu St Jean jaunaren lehengo ateleria.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazten du lau toki aipatu zirela.

Saint Jean medikuak zehazten du bere kusiak Kanbo Behereko apartamendu bat erosi nahi duela, Frontoieko plazan. Buztingintzan ari da eta beste buztinlari batzuekin erakusketak egin nahi ditu. Oraindik gauzatua ez den proiektua da.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zer gertatuko den Karaban'art Burlazteiatik joaten bada. « Haize-lasterrera » joan behar ziren jostunak zer bilakatuko dira ?

Auzapez jaunak erantzuten dio errezibituko dituela, elkarte horien artean sinergia bat sortzen entseatu behar delako. Berreskuratze izpiritu bat bada gauzak berriz erabiltzeko eta esleitzeko nahian, ekonomia zirkularra deitzen eta garatzen duguna da. Helburua da jostunak Burlazteiatik toki batean berriz instalatzea berantago, Karaban'art elkartearekin mutualizatua litzatekeen erakuste toki baten erabiltzeko paradarekin.

Auzapez jaunak bozkara pasatzea proposatzen du.

Simon jaun-andereen 1 100 m<sup>2</sup>-ko lur zati bat eskuratzea aho batez onartua da, auzapez jaunak erran baldintzapean.

## **9 – Herri bideak : bide sailkapenaren taularen eguneratzea.**

Auzapez jaunak herriko Kontseilua gonbidatzen du herri bideen sailkapen taula berria onartzera. Bideen luzaera 45 970 metro linealetik 46 645 metro linealera pasatzen da, « Paskalekuko bazter herrixka » (151ml) eta Agorreta (524ml) lotizamenduetako bideak sartu ondoren.

Auzapez jaunak zehazten du Funtzionamendu Emaidza Globalaren kuadroan (DGF), Estatuko zerbitzuak eta Kontseilu orokorrak diru laguntzak ematen dizkietela herriei, herri bideen luzaeraren arabera.

Urte honetako abenduaren 31a aitzin hartu behar da erabakia, ondoko urterako gehiketa hau kondutan hartua izan dadin.

Aho batez onartua.

## **10 – Haur eta gazteria kontratua : eraberritzea.**

Saint Jean medikuak ohartarazten du « haur eta gazteria » kontratua, 17 urtera arteko gazte eta haurrei zuzendu harreraren garapena sustatzen duen helburua eta ko-finantzamendu kontratu bat

dela, harrera eskaintzaren hobekuntza eta garapena bultzatu eta haur eta gazteen gizarteratzea zein loratzea zainduz.

Ekintzak hartzaindegirako harrerari dagokie gehienbat, baina baita AGAZ-ko jarduerak (Aterberik Gabeko Aisialdi Zentroa), eskola laguntzaileen aldizkatzearenak, tindu eta antzerki ikastaldiak eta parekatzeari.

Auzapezari 2014-2017ko hitzarmen berria izenpetzeko baimena ematera gonbidatua da herriko Kontseilua.

Aho batez onartua.

## **11 – Saneamendu sarearen hedatzea : hitzarmena Hazparneko herriarekin.**

Auzapez jaunak puntu hau gai zerrendatik kendua izatea proposatzen du.

Devèze jaunak zehazten du Hazparneko herriko etxeko Harguindeguy axuantarekin bildu dela. Herriko Kontseiluak onartu zuen hitzarmenaren lehen zirriborroa pixka bat aldatu da. Hazparneko herriko etxea proiektu berriaren hartzaile izan da baina ez da alde agertu. Horregatik puntu hau gai zerrendatik kentzea proposatzen zaizue.

Aho batez onartua.

## **12 – Inbertsio gastuen kredituak aitzinetik idekitzea.**

Devèze jaunak ohartarazten du Lurralde Elkargoen Kode Orokorrak aurreikusten duela hastapeneko aurrekontua bozkatua izan behar dela apirilaren 15a aitzin, gastuak ordaintzeko gai izan behar da elkargoa.

Gastu berriei dagokienez, LEKO-k aurreikusten du auzapezari gastu berrien abiatzeko baimena ematen ahal diola elkargoak, hastapeneko aurrekontuaren kontu aldirako ideki kredituen laurdenaren heinean.

Devèze jaunak herriko Kontseiluari proposatzen dio :

- inbertsio gastuen engaiatzea, likidazioa eta ordaintzea ahalbidetzea, hastapeneko aurrekontua zein saneamendurako aurrekontu gehigarriko ideki kredituen laurdenaren heinean, lurralde elkargoen kode orokorraren araberrako zorraren ordaintetari dagozkion kredituak barne hartu gabe,
- araudiaren araberrako inbertsio gastuen 2014eko kontu aldiaren hastapeneko aurrekontuaren kredituen %25a idekitzea, saneamendurako aurrekontu gehigarria eta aurrekontu orokorreko 2015eko hastapeneko aurrekontua bozkatu aitzin.

Aho batez onartua.

## **13 – Essor Basque bizikleta lasterketa : hitzarmena.**

Irastorza jaunak oroitarazten du 1995tik goiti, Kanboko herria « Essor Basque »-ri lotua dela bizikleta lasterketa baten antolatzeko. Aurten, otsailaren 15ean iraganen da lasterketa. Bi urtetik behin, Kanbo abiatze eta ailegatze hiria da.

Auzapezari Eссор Basque-rekin hitzarmena izenpetzeko baimena ematera gonbidatua da herriko Kontseilua, herriaren 3 500 €-ko parte hartze bat eskatua delarik.

Michelena jaunak ohartarazten du zenbateko handia dela. Galdegiten du urte guziz esleitua denez, Eссор Basque-k finkatzen duenez ala aitzineko urteko diru languntzari jarraiki zaionez.

Irastorza jaunak zehazten dio Eссор Basque-k finkatzen duela. Saioaren prezioa da, lasterketa horrek aurrekontu handia suposatzen du. Kanbo abiatze hiria izanki, 2 000 €-koa izanen da 2016an.

Michelena jaunak dio : « Eссор Basque-k finkatzen du orduan zenbatekoa, dena hartzeko ala bertan behera uztekoa da ». Komertzio aldetik adibidez, ba ote dakizue herriari zenbat ekartzen duen ? Zer irabazten du herriak ?

Irastorza jaunak erantzuten dio agerraldi hau jarduera apaleko denboraldian iragaiten dela, Kanboko ohitura bat da aspalditik. Ihauterietaz aparte, ez da besterik gertatzen garai horretan.

Auzapez jaunak ohartarazten du lasterketa horrek jende anitz erakartzen duela, batez ere Kanbo abiatze eta ailegatze hiria delarik. Kamustu den bizikleta ohitura bat da, lehen Kanboko besten denboran iragaiten zelako. Sasoiaren hastapenean iragaiten da, eta parte hartu duten txirrindulari amateur askok profesional gisa egin dute beren bidea. Sasoiaren aitzin agerraldia da, amateur gazte batzuen egoera indartzen ahal duen lasterketa. Lasterketa garrantzitsu eta famatua denez, eredu-zko irudi kirolzalea ematen dio Kanboko herriari. Ez da ondorio ekonomikorik. Hogeita hamar bat laguntzailek parte hartzen dute.

Auzapezak bozkara pasatzea proposatzen du.

Aho batez, auzapezari Eссор Basque-rekin egin hitzarmena izenpetzeko baimena ematen dio herriko Kontseiluak, heldu den otsailaren 15ean iraganen den bizikleta lasterketaren antolaketarentzat.

## **14 – Langileak – laneko osasun zerbitzuan kideku – hitzarmena.**

Zerbitzuen zuzendari orokorrak herriko Kontseiluko kideei ohartarazten die elkargoek prebentziozko medikuntza zerbitzu bat behar dutela, 1984eko urtarrilaren 26eko 84-53. legearen 108-2 artikuluan finkatu baldintzen arabera.

Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak laneko Osasun hitzarmen berri bat proposatzen du, prebentziozko medikuekin eta diziplina anitzeko talde batek lagundurik (prebentziozko aholkulariak, ergoterapeutak, laneko psikologoak, gizarte laguntzaileak, urritasunaren araberrako laguntzaileak). Kotizazioaren zenbatekoa 50 €-koa da langileka.

Auzapez jaunak proposatzen du 2015eko urtarrilaren 1etik goiti, Kudeaketa Zentroak proposatu laneko Osasun hitzarmena onartzea.

Aho batez onartua.

## **15 – Txakurrak herriarte sindikatua : estatutuen aldaketa.**

Barbier jaunak ohartarazten du 2014eko urriaren 9an egin deliberazioaren ondotik, Txakurrak zentroaren kudeaketarako herriarte sindikatuaren batzordeak Arrangoitze eta Bastidako herrien kentzea eta estatutuen 1. artikulua aldaketa onartu dituela.

Lurralde elkargoen Kode orokorreko 5711-1 artikulua arabera, sindikatu honen kide den elkargo bakoitzak estatutuen aldaketa onartu behar du.

Arrangoitze eta Bastidako herrien kentzearekin, Txakurrak herriarte sindikatuaren estatutuen aldaketari buruz iritzi bat ematera gonbidatua da herriko Kontseilua.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zergatik herri hauek sindikatutik joaten diren.

Barbier jaunak erantzuten dio kotizazioen goratzeagatik dela, bainan abereen defentsan diharduten elkarte guziek zakur herratuen kudeaketari kasu egingen dutela.

Auzapez jaunak zehazten du herriek zerbitzu publiko hau antolatu behar dutela zakur herratuen errezibitzeko. Herriko edo herriarteko txakurtegi bat behar da. Gai hori herri elkargoan aipatu da. Zoritxarrez, beste herri batzu sindikatutik joanen dira menturaz, eta zoritxarrez Txakurrak sindikatuaren bukaera markatuko du. Irastorza jaunak ohartarazi duen bezala, garestiago litzateke herriek berek beharrezkoa den zerbitzu publiko hau antolatu bazuten. Zakur herratu anitz bada, batez ere uda garaian. Ez badu gaur egun bezala sindikatu misto batek konduan hartzen, lurralde elkargoek edo beren taldeek asko kostatzen duen galdera horri erantzun beharko dute.

Eztabaidatu ondoren, Txakurrak herriarte sindikatuaren estatutuen aldaketa aho batez onartzen du herriko Kontseiluak.

## **16 – Ur edangarria eta saneamenduaren zerbitzu publikoa : 2013ko txostena.**

Devèze jaunak ohartarazten du herriko Kontseiluak ur edangarria eta saneamenduaren zerbitzu publikoen kalitatea eta prezioari buruzko 2013ko txostena ezagutu behar duela, lurralde elkargoen kode orokorreko L.2224-5. artikulua arabera.

Devèze jaunak URA Sindikatuak egin ur edangarriari buruzko txostenaren berri ematen du. Lyonnaise des Eaux-ko ordezkariak eman saneamenduari buruzkoaren berri ematen du ere, herriak berak gaitasuna atxiki duelarik eta herriko kontseilari bakoitza hartzaile izan delarik.

## **17 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Lurralde elkargoen kode orokorreko L. 2122-22 eta L. 2122-23. artikuluen zein 2014eko apirilaren 7an herriko Kontseiluak egin deliberazioaren arabera, hona hemen auzapez jaunak egiten duen komunikazioa :

a) Erabaki negatiboak 2014eko urriaren 21etik 2014eko azaroaren 26era hirian erosteko lehentasunari buruz (DPU) :

- Lur zati : 0
- Etxe : 3
- Apartamentu : 3

b) Erabakiak herriko hilerrian lur emateari buruz, 2014eko urriaren 11tik 2014eko azaroaren 26era :

- 15 urteko kontzesioen erostea : 0
- 30 urteko kontzesioen erostea (hilobiak) : 2
- Kontzesioen erostea (columbarium delakoak) : 1
- 15 urteko kontzesioen eraberritzea : 1

- 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobiak) : 3
- Dohainiko lur zatien berreskuratzea : 0

## 18 – Gainerako galderak.

Auzapez jaunak ondoko informazioak ematen ditu :

- ✓ Agiantzak : 2015eko urtarrilaren 4ean, igandearekin, goizeko 11etan. Musika emanaldi batekin hasiko da herriko etxearen aitzinean, gero herriko Kontseiluaren gelan segitzeko.
- ✓ Joan den abenduaren 4eko hauteskunde profesionalen emaitza :  
Bozka zerrendetan zirenak : 103  
Bozkatzaileak : 82  
Bali diren bozak : 78 (4 zuri eta baliogabe)  
Emaitzak :  
LAB zerrenda : 50 boz, hots 2 aulki 3ren gain  
CGT zerrenda : 28 boz, hots aulki 1 3ren gain  
Aldarrikatu hautetsiak :  
LAB zerrenda : Aines Haristoy eta Sandrine Noizillier (ordezkoak : Patrick Peña et Alain Aïçaguerre)  
CGT zerrenda : Miren Boulaert-Perrier (ordezkoa : Christine Dolhagaray).  
Ez da errekoriturik izan hauteskunde horietan.
- ✓ Joan den uztailaren 4eko uholdeen ondotik, Miarritzeko Veunac auzapez jaunak « Magifique » izeneko ezohiko dantza emanaldia antolatzea proposatu du Thierry Malandin-en balleten akordioarekin, Kanboko biktimei kalte-ordaina emateko. Emanaldia Miarritzeko Gare du Midi gelan iraganen da heldu den abenduaren 28an, 19:30tan, 28 €tan helduentzat eta 10€tan haurrentzat. Autobus garraio bat antolatu da. gaur egun 80 pertsonak erreserbatu dute autobusa, eta 50 bat pertsonak garraio publikoak erabiliko dituzte. Auzapez jaunak jende guzia gonbidatzen du emanaldi horren ikustera. Izen-emateak herriko etxean egiten dira Nicolas Le Bars-ekin. Ondotik, Sokorri Katolikoarekin juntatuko den gizarte arazoan batzordea bilduko da kaltetuen ordaintzeko. Herriko Kontseiluaren izenean, Miarritzeko auzapeza eta Thierry Malandin-en balletak eskertzen ditu auzapez jaunak.
- ✓ Hiriart-Urruty andreak galdegiten du zertan den lehengo txokolategiaren lur zatian eraman proiektua.

Bardin jaunak erantzuten dio hirigintza batzordeko bilkuraren ondotik, baimenari zuzenketak eta dokumentu gehiago ekartzea eskatu dela.

Lespade andreak ohartarazten du ez dela herriko etxeko proiektu bat baizik eta pribatu bat.

Hiriart-Urruty andreak oroitarazten du hirigintza batzordean erran zuen bezala, proiektu horrek, ur-onetako ibiltariei apartameduak alokatzen dituzten Kanboko komertxanteei, ostalariei eta kanboarrei kalte eginen diela.

Bardin jaunak pentsatzen du ostalarientzat abantaila ekonomikoa dela. Herria ezin da proiektu pribatu batean sartu.

Hiriart-Urruty andreak ohartarazten du 110 estudio izanen direla alokatzeko, eta ur-onetako ibiltariei apartamenduak alokatzen dituzten ostalari eta partikularrei kalte eginen diela horrek.

Bardin jaunak jakinarazten du hotel edo entseina batek instalatu nahi badu, ezin dela kontra altxatu.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du lur honen kokagunea ikusirik, zergatik herriko etxeak eraikina ez duen lehentasunez erosi enpresa mintegiak edo kanboarrendako etxebizitzak eraikitzeko.

Bardin jaunak erantzuten dio lur zatiaren prezioa ikusirik, herriari zaila zaiola lehentasunez erostea.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zenbatekoa den sal-prezioa.

Bardin jaunak biziki garesti dela dio.

Lespade andereak ohartarazten du lur zatiaren erosteari amiantoa duen eraikinaren suntsitzea gehitu behar zaiola.

Bardin jaunak zehazten du proiektu hori 5 milioi euro baino gehiagokoa dela. Lur zatiaren prezioa 2 milioi euro ingurukoa izan behar da. Ez du uste herriak lur zati bat erosten ahal duenik prezio honetan.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du topaketa bat izan denez ostalariekin.

Bardin jaunak baietz erantzuten dio. Beren oharrak egin dituztela, baina proiektu pribatu bat zela ere erran zitzaizela, baldintzen bilduma errespetatu behar zela. Proiektu honen kontra ezin da joan baldintzen bilduma errespetatzen duteno. Herria bera auzitegira eramana balitz, galduko luke.

Hiriart-Urruty anderearen galdera : « herriak ezin ote zuen lehentasunez erosi? »

Auzapez jaunak ezetz dio, herri elkargoaren gaitasunetan sartzen den garapen ekonomikoa lehentasuna bada ere. Alabaina, lur zatiak aurkitu behar dira jarduera ekonomikoa laguntzeko. Hiri barnean, enpresen edo eskulangileen instalazioak nekez egiten dira. Komertzioa eta industriaren askatasunaren inguruan, printzipio handia existitzen da. Arautuak diren lanbideak auzitegira eramaten ditugu, baina zein printzipioren izenean auzapez batek erran dezake proiektu bat on edo txarra dela? Jarduera komertziala zuzenki auzitan jarria delarik, promotoreak gibelarazten ahal ditugu, baina ezin ditugu trabatu. Hipermerkatuen instalazioen kontra soilik jartzen ahal da herria, ekipamendu komertzialaren departamenduko batzordearen aitzinean pasatzen delarik (CDEC). Bestalde, Lurralde Antolaketa Eskemak (LAE) egin ikerketa batek erakusten du elikadura ongi errepresentatua dela Kanbon. Ostalaritza klasikoari dagokionez, eta Hirigintza Tokiko Planarekin bateragarria bada, ezin da ezetz erran. Zorionez, Frantzia herri libre da non komertzioa eta industriaren askatasuna bermatua den. Garrantzitsua den eta pertsona asko biziarazten duen ekonomia turistikoa garatu nahi du herriak, eta oroitarazten du bainuetxearen hesteak diru sartze beharakada handia ekarri duela, partikularrengandik ere bai. Lehen mailako turismo bulegoa du herriak, eta laster « turismo estazio gisa » ekarria izanen da. Euskal Herriko barnealdeko lehen lurraldeetan kokatua da herria, eta arlo turistikoan zein beste arloetan, anbizioa behar da. Ur hiri turistikoa da Kanbo, ekipamendu hau ez da kondenatua izan behar.

Hiriart-Urruty andereak dio Bardin jaunak erran duen bezala, proiektu hori ez dela bideragarria, Kanboko hotelak hustuko dituela.

Bardin jaunak zehazten du ez duela halakorik erran. Halako proiektu bat abiatu aitzin, segurki promotoreak merkatu ikerketa bat egin duela dio. Oroitarazten du ez dela baimenarik

emanen baldintzen bilduma errespetatua ez deno. Baimena ematen baldin bada, obren garapena hurbiletik zainduko da.

Hiriart-Urruty andereak dolu du, lehenasunezko erostea garestiegi bazen ere. Lur zati handia denez, proiektuak eta proposamenak egiten ahal ziren bai enpresa batzuei, bai eta ere herri elkargoaren ekonomia batzordeari. Uste du proiektu batekin zerbait egiten ahal zela.

Auzapez jaunak ohartarazten du Boscq jaunak aurreikusi sal-prezioa ikusirik, ezinezkoa zela herriarentzat. Enpresa batek lur zatiaren sal-prezioa zaintzen du. Konkurrentzia handia da, Landesetako hegoaldek lur zatiak Euskal Herriko barnealde eta kostaldearen artekoenak (hots Kanboko herria barne) baino merkeagoak direlarik. Zaila da bokazio ekonomikoa duten lur zatiak atxematea. Barnealdean baino, herrien kanpoaldean kokatzen dira hobekiago. Besterentze adierazpena herrira helduko delarik, herri elkargoari transmitituko dio auzapez jaunak.

Auzapez jaunak dio komertzioen eta beren kokaguneetaz ezin duela erabaki herriak. Zein printzipioren izenean auzapez batek besteen ordeztu erabakitzen ahal du? Pil Pil bodega instalatu zelarik protestak izan zirela oroitarazten du.

Hiriart-Urruty andereak erraten eta atxikitzen du ondorio ekonomikoak ezberdinak izanen direla. Ezin da Pil Pil konparatu 110 etxebizitzeez eta jatetxe batez osaturiko hotel-erresidentzia batekin...

Auzapez jaunak dio instalatua den komertsante batentzat lehiakide bat izatea ez dela gozoa, baina Frantzia herri libre denez, legea errespetatzen duten proiektuak ezin direla debekatu. Bideratzen edo aholkatzen entseatzeko ahal da, baina ezin da kontra jarri, hipermerkatuen kasuan ez ezik, herriak berak CDEC-ri eman behar duelarik bere iritzia.

- ✓ Michelena jaunak ohartarazten du 2014eko inbertsio aurrekontuan, Oussimendiako lur zatiaren salmentari dagokion 1 000 000 €-ko errezeta idatzia dela. Ez da salmentarik izan, 1 000 000 € inbestitu dira beraz errezetarik egin gabe. Orduz geroztik, zein dira eraman ezin izan diren obrak errezeta eskas horrengatik?

Devèze jaunak zehazten du salmenta arazo hau inbertsio errezeta arazo bat dela. Duela bi kargualdi, 1 150 000 €-ko errezeta idatzia da, eta milioi batekoa. Zenbatekoa kreditu linea batean idatzia da 2015eko abenduaren 31ra arte. Lur zati hori ez da oraingoz saldua izan, baina aurrekontua modu orekatuan aurkeztua da. Diruzaintza linea hori dugunez, programa guztiak gauzatu dira. Lur zatia maila horretan utzia bada, errezeta egoki batez indartuko dugu diruzaintza linea hori. Ez bada egiten, lur zerga baliatzen ahalko dugu. Momentuko, pertsona zaharrendako bizileku bat sortzeaz da. Eztabaidak ez dira hetsiak, ez da erabaki definitiborik hartu. Beste hautu batzuk izan daitezke ere. Diruzaintza linea ez da berrituko 2015etik aitzina, eta lur zerga honen esleitzeari dagokion erabaki bat hartuko da. Lur zati hau ezin saldua bada ere, ez du kalterik sortzen aurreikusitako diren obretan.

- ✓ Michelena jaunak dio herriko berripaper berria e-mailez jaso duela, eta 16. orrialdeko lerro bat irakurtzean harritu dela: « Bestalde, herriko batzorde guztiak aktiboki ibiltzen dira eta beren iritzia eta oharrez elikatzen dute herriko Kontseilua ». Batzorde bat baino gehiagoren kide da eta zehaztu nahi du horietariko bat ekainaren 18tik ez dela bildu, beste bat uztailaren 16tik eta hirugarren bat ez dela sekulan deitua izan instalatu denetik ». Polemika ez sortzeko, batzorde horien ez izendatzea erabaki du.

Auzapez jaunak dio kuraia politikoa erakutsi behar dela, eta interesgarria atxematen duela jakitea, ez baititu berak batzordeak deitzen.

Michelena jaunak dio kultura batzordea dela ekainaren 18tik bildu ez dena, uztailaren 16tik eskola arazoena dela, eta azkenik laborantza batzordea dela sekulan bildu ez dena. Batzordeen lana garrantzitsua da, nahiz eta herriko Kontseiluaren bilkuretan zehar oposizioko hautetsiek batzordean eramana edo proposatua dena ez dela transmititua pentsatu. Batzorde batzuen lan eskasak ez du herriko Kontseilua dinamika batera bultzatzen.

Michelena jaunak aipatu adibideez aparte, auzapez jaunak onartzen du beste batzorde batzuk erregulariki biltzen direla (obrak, hirigintza batzordea...). Urtean hiruzpalau aldiz biltzen badira « ez dela gaizki ».

Bardin jaunak dio batzordeak elgar biltzeko izan behar dela zer pentsa. Urtarrilean, Hirigintza batzordea deituko du lehenago aipatu proiektuaz eztabaidatzeko eta bere garapena segitzeko. « Ez dugu batzorde bat bilduko soilik biltzeko plazeragatik », dio hirigintzako axuantak.

Michelena jaunak erantzuten du esaldi hau idatzi duen pertsonak ez dakiela nola ibiltzen diren batzordeak. Badaki batzorde batzuk erregulariki biltzen direla, baina ez zen esaldi hau idatzia den bezala utzi behar.

Auzapez jaunak jakinarazten du esaldia orokorregia dela agian. Batzorde batzuk aski erregulariki biltzen direla ohartarazten du hala ere, herriko etxeko bizia soilik maiatzean abiatu delarik.

Michelena jaunak esperantza du 1995etik, auzapez jaunak batzordeak ibilarazten dakiela.

Auzapez jaunak erantzuten dio ez dituela berak data, erritmoa eta gai zerrenda proposatzen. Oharra ez da interesik gabekoa, baina ez du auzapezak erabakitzen. Batzordeen lehendakariak ez diote eskatzen beren batzordeak biltzen ahal dutenez. Bestalde, auzapez jaunak zehazten du batzordeen bilkuretan ez duela parte hartzen. Bere taldearen kontseilariak herriko taldean erakusten duten lana zein leialtasuna azpimarratzen du, hauteskunde batean irabazleak eta galtzaileak direlarik. Irabazten dutenek ez dituzte galtzen dutenak ito behar, baina gehiengoak bere programa aplikatu behar eta nahi du. Azken hau astelehenero biltzen da programaren arabera gaiak aitzinarazteko.

- ✓ Hiriart-Urruty andereak galdegiten du herriko berripaperari dagokionez, norik egiten duen banaketa.

Auzapezaren baimenarekin, Lassus jaunak hitza hartzen du. Azken honek kontseilariak egiten dutela banaketa erraten du, beste kargualdian gertatzen zen bezala. Gehiengoko hautetsiek egiten dute 7. berripaperaren banaketa.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du zergatik gehiengoko hautetsiek soilik egiten duten.

Lassus jaunak erantzuten dio ez dela arrazoi berezirik, elkar aditze bat da, sektore handiak dira, ez zen segur oposizioko hautetsiek banaketa honetan parte hartu ahal izan zutenik.

Hiriart-Urruty andereak erantzuten dio ez zirela deituak izan ere, ez zitzaizela ere ez eskatu. « Sinestezina » iduritzen zaio.

Auzapez jaunak zehazten du gehiengoak berripaper guztiak banatuko dituela, eta logikoa dela. Lehen, berripaperaren banaketa La Poste-ren adar baten esku eman zuen herriak, eta Gailurretako bidea eta Paskaleku zein Berhartaiko auzoen zati handi batera ez zen zabaldu.



Horregatik formula aldatzea erabaki zen, eta gehiengoak eramana zein idatzia den berripapera denez, oposizioak orrialde bat izanki, normala da gehiengoko hautetsiek banaketa egitea.

Hiriart-Urruty andereak ez du normala atxematen, haiek ere kanboarren hautetsiak direlako, lau kanboarretarik batek haien alde bozkatu duela. Galdegiten du gehiengoko hautetsiak beldur direnez oposiziokoak herritarrekin biltzea, haiekin mintzatzea, edo la Poste-k egin duen bezala, berripapera ez banatzea.

Bardin jaunak ohartarazten du berripapera gutunontzietan ezartzen dutela, eta ez dutela politikoki erabiltzen.

Hiriart-Urruty andereak dio bere taldea harritu dela ez zirela deituak izan ikusirik. Berriz dio : « berriz ere demokraziaren froga bat dugu. Froga beldurtzen zaituztegu, ez diguzue aipatu ere ez ».

Auzapez jaunak erantzuten du la Poste-k berripaper bat igortzen duelarik edo etxeetan banatua delarik, ez dela deliberaziorik hartzen. Exekutiboak erabakitzen du.

Hiriart-Urruty andereak erantzuten du : « zu zira lege hauek ematen dituen, exekutiboa ».

Aiçaguerre andereak galdegiten du banaketa hasi denez, noiz bukatuko den.

Lassus jaunak jakinarazten du abenduaren 13tik eskuragarri direla, eta esperantza duela heldu den asteburuan banaketa bukatzea, zentzuzko epe bat atxikitzen engaiatu zirelako, herritarren artean informazio banaketa desorekarik ez izateko. Normalean, taldeak antolatzen ari dira urte bukaerako ospakizunak aitzin berripaper guzien banaketa bukatzeko.

Auzapez jaunak pentsatzen du herriko berripaperen banaketatik kanpoko beste mail batean erakusten dela demokrazia. Gauzak normalki egiten dira, helbiderik ez ahanzten entseatuz, zaila baita dena egitea deus ahanzi gabe.

Bilkura 22:40tan bukatu da.